

JARKI-k antolatutako 2021eko Gudari Eguneko kronika

JARDUN :: 26/09/2021

El acto organizado por la organización revolucionaria JARKI ha reunido cientos de personas en la plaza de Leitza.

[Euskara]

Tentsioa zen nabari 2021eko irailaren 25eko larunbat goizean Leitzako udalerrian. Guardia Zibila zein sekreten presentzia nabaria izan da goizeko lehen ordutatik. Honi, GAR-ak JARKI antolakunde iraultzaileak antolatutako ekitaldi politikora gerturatutakoak identifikatzeko eta kontrolatzeko herriko sarreran jarri duten kontrola gehitu behar zaio. Patxada horretan guardia zibilek ez dute inolako arazorik izan Bilbon eta Gernikan antolatutako autobusa gelditu eta ordu bete luzez bahituta mantentzeko. Hau ez da jazarpen polizialeko episodio bakarra, izan ere, Leitzako JARDUN-eko kideen arabera azken egun hauetan segimendu polizial nabariak paraitzen ari dira sekreten partetik.

JARKI-k antolatutako ekitaldiak ehunka pertsona bildu ditu Leitzako plazan. Pebeteroa piztuta, adarraren soinuak eta txalapartariekin sarrera eman diote ekitaldiari, ikurrina erraldoi baten pean. Ondoren, dantzariekin bide eman diote agintarienari, haize bolada zakarrak zirela eta ikurrina erraldoiaren goi eskuinaldeko euskarria apurtu eta bi gazte frontoira igo eta tente sostengatu dutelarik ekitaldi osoan zehar. Jarraian, bi bertsolari igo dira oholtzara independentzia, sozialismoa eta amnistia, zein gudarien borrokaren zilegitasuna azpimarratzen zituzten bertso bana botaz.

Gerora, JARKI-ko kide batek Gudari Egunaren harirako antolakunde iraultzailearen irakurketa jasotzen zuen hitzaldia plazaratu du. Hitzaldian beste gauza askoren artean Euskal Herriaren gogoan borrokaren aldarrikapena egiteko, eta horretan dena eman dutenak gogora ekarri, zein eurek aurrera eramandako borrokaren zilegitasuna aldarrikatzeko eguna dela azpimarratu du. Horri jarraiki, kolore ezberdinako txakurren presentzia eta hauek jarduterako orduan daukaten inpunitatea aipatu du, argi utziz zapaltaile eta zapalduen artean ez dagoela inolako adiskidetzarik. Honek, gogoeta jakin bateruntz eramatzen du antolakunde iraultzailea; zanpatzen zaituenari, azpiratuta mantentzen zaituenari hortzak erakustea ez dela erabaki bat, behar bat baizik. Eusko Gudariak eta internazionala abestuta ekitaldiari amaiera eman zaio.

[Castellano]

El ambiente ha sido tenso el día 25 de septiembre del 2021 en Leitza debido a la presencia de la Guardia Civil y de los secretas desde la primera hora de la mañana. A esto hay que sumarle el control e identificaciones que se han llevado a cabo por los GAR a muchos de los asistentes al acto político organizado por la organización revolucionaria JARKI. Del mismo modo, la Guardia Civil no ha tenido ningún impedimento en retener y someter a un control a los viajeros que llegaban en el autobús que se había organizado desde Bilbao y Gernika. Este no ha sido el único episodio de represión policial dado que varios militantes de

JARDUN de Leitza afirman haber sufrido seguimientos por parte de la policía secreta estos ultimos días.

El acto organizado por la organización revolucionaria JARKI ha reunido cientos de personas en la plaza de Leitza. Una vez encendido el pebetero, con el sonido de la adarra y los txalapartaris se ha dado comienzo al acto, amparado por una gigantesca ikurriña. A continuación, los dantzaris han dado paso al “agintariena” mientras una ráfaga de viento ha roto la cuerda que sujetaba la ikurriña y dos jóvenes se han tenido que subir al frontón y sostenerla durante el resto del acto. Después, han subido dos bertsolaris al escenario reivindicando la independencia, el socialismo y la amnistia, como la legitimidad de la lucha de los gudaris con sus versos.

Llegando al final, un miembro de JARKI ha leído el comunicado acorde al acto del Gudari Eguna. El comunicado entre otras muchas cosas reivindicaba la lucha en memoria de Euskal Herria, y de todos aquellos que han dado todo a favor de esta, legitimizando así su lucha y la celebración de este día. También, ha mencionado la presencia de los perros de diferentes uniformes que actúan con total impunidad, dejando claro que no hay ningún tipo de convivencia entre oprimidos y opresores. Esto lleva a una clara reflexión a la organización revolucionaria JARKI; Hacerle frente a quién te oprime y a quién te mantiene bajo su control no es una opción, sino una necesidad. El acto ha finalizado cantado la Internacional y el Eusko Gudariak.

<https://eh.lahaine.org/jarki-k-antolatutako-2021eko-gudari>